

Nor eta nortzuk?

Ermuko Udala, Eibarko Ingeniaritzako Eskola Teknikoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko Informazio eta Industri Teknologikoen Elkarte batekin -GAIA- **Teknologi Ikerketako Proiektuen II. Lehiaketa eta Azoka** antolatzen ari da Ermuko Toki Garapeneko Astea 2010 delakoaren inguruan.

Zergaitik?

Gutziz aintzat hartzen dugu ikastetxe askok ikerketa-lanaren alde egiten duen ahalegina eta jakitun gara zein garrantzitsua de lan hori gure gizartearen garapenerako, horregatik ekimen honen lehenengo helburua ikerketa-lana ezagutaraztea eta balioa ematea da, merezi duen aintzatespena izan dezan.

Beste alde batetik, lehiakortasuna bide, merkatuaren garapena sustatu nahi dugu eta, noski! ikertetan egiten den lana eta inbertsioa berreskuratu; horregatik behar-beharrezkoa da ikerketa eta merkatuaren artean harremana egotea eta mundu bateko eta besteko pertsonak kontaktuan jartzea. Asmo horrekin antolatu dugu honako **erakusketa publiko** hau, nolabait esateko.

Norentzat?

Ikerketa teknologikoan denbora edo baliabideak inbertitzen ahalegintzen den edozein erakundetako ikertzaile edo ikertzaile-talderentzat, proposatutako proiektua etorkizunean merkaturatzeko modukoa edo ideia moduan bidegarria izan badaiteke.

Hala ere, ikerketa-proiektuak ez duela txapelketa honetan lekuri baina guk ikustea interesgarria izan daitekeela pentsatzen baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan.

Noiz?

Proiektuak 2010eko apirilaren 21 baino lehen bidali beharko dira.

Merezi duten balioa emateko, apirilaren 30ean **publikoki erakutsiko dira proiektuok**, Ermuko Toki Garapeneko Astearen baitan.

Zer aurkeztu?

Ikerketa-proiektuak ondorengoak dokumentuak izango ditu:

- Proiektuaren deskribapen-memoria.
- Ikertzaile nagusiaren kurrikuluma eta gainontzeko ikertzaileen, egonez gero.
- Erakusketa publikoa ahalbidetzeko elementuak.

Elkarlanean:

Non aurkeztu?

Proiektua aurkezteko ez da beharrezkoa Ermuraino etortzea eta proiektua eskura ekartzea. E-mailez bidal daiteke abiapuntu@udalermua.net helbidera apirilaren 21 baino lehen.

Bialtzen den E-mailean "Teknologi Ikerketako Proiektuen II Lehiaketa" erreferentzia jarri beharko da.

Nahitaezkoa izango da guk erantzutea. 24 orduko epean erantzunik jaso ezean deitu 943179151 telefonora, zure proiektua zertan den jakiteko.

Sariak:

Egindako ahalegina saritzeko asmoz ondorengo sariak banatuko dira:

- 1. saria: 2.000 €, eta proiektua merkaturatu nahi izanez gero, Ermuko enpresa haztegian enpresa jartzeko aukera, 28. ordenantzan ezarritako hobaridun baldintzen arabera.
- 2. saria: 1.000 €, eta proiektua merkaturatu nahi izanez gero, Ermuko enpresa haztegian enpresa jartzeko aukera, 28. ordenantzan ezarritako hobaridun baldintzen arabera.

Baldintzak:

Aurkezpena dokumentu honetan ezarritako datan egingo bada ere, proiektua aurkeztu nahi izanez gero 2010eko apirilaren 10ean baino lehen jakinarazi beharko zaigu, proiektua behar bezala erakutsi ahal izateko behar dena antolatze denbora izan dezagun.

Epaimahaia:

Epaimahaia Ermuko Udaleko eta GAIA- Autonomi Erkidegoko Informazio eta Industri Teknologikoen Elkarteko kidez egongo da osatuta.

Epaiaren erabakiaren kontra ezingo da gorako errekurtsorik jarri.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.

Arau horietako edozein ez betetzeak proiektua ez baloratzea ekar lezake.

Epaimahaikoek sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango dituzte proiektu kopuru nahikoa aurkeztzen ez bada edo aurkeztutakoek behar beste kalitaterik ez badute. Erakusketa publikoak, gainera, partaidetza eta ezugarri minimo batzuk bete beharko ditu.

Elkarlanean: